



LANGILE AUTONOMOEN KOTIZAZIOAREN URTEKO ERREGULAZIOA (2024/08/01etik aurrera)

ERREGULARIZAZIOA	Kotizazioa erregularizatzen da Tributu-administrazioek langile autonomo bakoitzari dagokionez komunikatutako urteko errendimendu garbiaren arabera.
ERREGULARIZAZIOAREN SALBUESPENAK	Ez dira erregularizatuko GSLOren 44.3 a), c), d) eta e) artikuluetan eta LAELen 38 ter artikuluan erregulatutako kotizazioak, baldin eta errendimenduek LGSa gainditzen ez badute.
ERREGULARIZAZIOA ZEHAZTEKO ARAUAK	<p>1-Egunen kalkulua: altan egondako egunak zehazten dira, baztertutako aldien egunak kenduta.</p> <p>2-Errendimenduen hileko batez bestekoa: urteko errendimendu garbiak altan egondako egunekin zatituz eta zenbateko hori 30ez biderkatuz kalkulatzen da.</p> <p>3-Behin-behineko oinarrien hileko batez bestekoa: behin-behineko oinarriak batzen eta baztertutako egunak kentzen dira. Ondoren, zenbateko hori zatitzen da altan egondako egunak 30ez biderkatzearen emaitzarekin.</p> <p>4-Errendimendu-tarteak: aurreko arauak aplikatu ondoren lortutako zenbatekoa taula orokor edo murriztuko hileko errendimendu garbien zein tarteri dagokion zehazten da.</p> <p>5-Aldien arteko kontrastea: hileko batezbesteko kotizazio-oinarria dagokion tartearen barruan dagoen ikusten da.</p>
ERREGULARIZAZIOAREN EMAITZAK	<p>Behin betiko kotizazio-oinarria: oinarriaren kontrastearen arabera, tarteko gutxieneko edo gehienekoa izan daiteke. Halaber, baliteke aldaketarik ez jasatea.</p> <p>Kotizazioen arteko aldeak: behin-behineko eta behin betiko oinarrien aldeak kalkulatzen dira, dagozkien kotizazio-motak aplikatuz.</p>
KASU BEREZIAK	<p>LAABen eta Itsasoko Langileen ABko I taldean aldi berean altan egotea.</p> <p>Errendimendu baxuko artista autonomoak.</p> <p>Salmenta ibiltariko langile autonomoak.</p> <p>Errendimenduaren arabera, zegokiena baino oinarri altuagoa kotizatu duten langile autonomoak.</p>
ERREGULARIZAZIOAREN PROZEDURA	<p>Jakinarazpena eta ordainketa: ordaindu beharreko aldeak jakinaraziko dira eta ezarritako epean ordaindu beharko dira, berandutze-korriturik gabe.</p> <p>Itzulketak: itzulketak ofizioz egingo dira, hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen.</p>